



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilak 21

Vitoria-Gasteiz, 21 de enero de 2020

Lehendakaritza

BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN PLANEAN 2019. URTERAKO AURREIKUSITAKO EKIMENAK NEURRI HANDIAN BETE DIRELA EGIAZTATU DU EUSKO JAURLARITZAK

- **Gobernu Kontseiluak Planaren kudeaketaren eta gauzatzearen 2019ko balantzea eta urte honetarako erronka nagusiak ezagutu ditu gaur**

Gobernu Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020ko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren jarraipenari buruzko urteko txostena jaso du gaur. Txosten horretan, Planak kontuan hartzen dituen ekimenen kudeaketaren eta gauzatzearen 2019ko balantzea eta 2020rako erronka nagusiak daude jasota.

Zehazki, Plana osatzen duten 15 ekimenetatik, 11tan % 100ean bete dira 2019rako aurreikusitako konpromisoak. Gainerako lau ekimenetan, berriz, betetze-maila % 80ra iritsi da, eta legegintzaldi honetan gauzatzea dago aurreikusita. Hori guztia dela eta, Planaren betetze-mailak Eusko Jaurlaritzaren balorazio positiboa jaso du.

BALANTZE OROKORRA

2017-2020ko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren kudeaketari esker, jarduera integraleko ardatz multzo bat zabaldu ahal izan da, honako hauek biltzen dituena: iragana argitzeko politika publikoak, biktimak, memoria, espetxe-politika, hezkuntza, aniztasuna, elkartasuna, zabalkundea, parte-hartzea, nazioarteko ekintza eta bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura.

Osatzeko geratzen den agendari dagokionez, esparru horretan egindako balantze espezifikokoago bati esker honako lorpen nagusi hauek azpimarra daitezke:

- ETaren armagabetzea eta desegitea gertatu da, eta aldebakarrekoa, behin betikoa eta kontrapartidarik gabekoa izan da.
- Euskal gizartean, indarkeriaren deslegitimazioari eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako bizikidetzaren normalizazioari lotutako Gizarte Topaketa finkatu da.
- Biktimen arloan, legeek laguntzaren, errekonozimenduaren eta erreparazioaren esparruan ezartzen dituzten aurreikuspenak betetzen ari dira.
- Gogora Institutua Euskadiko iraganaren memoria kritikoari lotutako politika publikoen kudeaketa adosturako gune gisa finkatu da.
- Aldaketarik gabeko hainbat urteren ondoren, espetxe-politika aldatzen hasi zen aurreko legegintzaldian, Frantzia zein Espainian.

Osatzen ari den agendari dagokionez, egindakoaren balantzeak honako erreferentzia nagusi hauek eskaintzen ditu:

- Migrazioaren arloan, Idazkaritzak aktiboki hartu du parte Migrazioarako Euskal Itun Soziala, Share proposamena eta iragaitzazko migratzaileei arreta humanitaria emateko Kontingentzia Plana diseinatzen eta bultzatzen.
- Errefuxiatuen harreraren eta integrazioaren arloan, Erakunde arteko Mahai Sozialean adostutako lan-programa garatu du Idazkaritzak. Halaber, lehen harrerarako aterpeak ireki ditu (Larraña Etxea Oñatin eta Zuloaga Txiki Tolosan). Bestalde, Babes Komunitarioko esperientzia pilotua jarri du abian ACNUR erakundearekin, Espainiako Gobernuarekin, Cáritasekin eta Jesuitekin. Dei humanitarioei erantzun die, eta Aita Mari proiektua abian jartzen lagundu du.
- Idazkaritzak "Eusko Jaurlaritzak euskal komunitate islamikoarekin batera bizikidetzaren sustatzeko abiarazitako Jarduketa Programa" dinamizatu eta garatu du, eta ADOS Aholku Batzordearen lan-plana garatzen jarraitu du.
- Gobernu Kontseiluak EAEko kultu-leku eta kultu-zentzoei eta erlijio-aniztasunari buruzko Legea onartu du.
- Idazkaritzak, halaber, erradikalizazio biolentoaren prebentziorako Uztartu gizarte- eta hezkuntza-programa bultzatu du, baita Etikasi programaren esperientzia pilotua ere. Ildo horretan, kontzentrazio-esparruak edo indarkeria-gertaera larriak bizi izan dituzten Europako leku enblematikoetarako hezkuntza-bisitak egin dira.

2020. URTERAKO ARDATZ NAGUSIAK

2020. urteari begira, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren jarduketa-programak zehatz-mehatz definitzen ditu egin beharreko jarduketak.

- ✓ ETAREN desagitea gauzatu ondoren, jarduera-ardatz estrategiko bat da terrorismoak eta indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketek sorrarazi duten kaltearen bidegabekeriari buruzko gogoeta kritikoko prozesu partekatu bat sustatzen jarraitzea.
- ✓ Terrorismoaren biktimekiko elkarrizketa, lankidetzaren eta akordiorako esparruetan sakontzen jarraitzea.
- ✓ Gogora jarduketa-programaren eta haren Zuzendaritza Kontseiluaren bitartez, memoriari lotutako politika publikoetan ahalik eta adostasunik handiena sustatzen jarraitzea.
- ✓ Espainiako Gobernuarekin, Frantziako Gobernuarekin eta legebiltzar-taldeekin espetxe-politikaren orientazio berri bat bultzatzeko (hurbilketaren eta erantzun humanitarioen arloan) eta gizarteratze-politikak bultzatzeko akordioak sustatzea.
- ✓ Bizikidetzaren inguruan sortzen ari diren erronkei erantzutera bideratutako ekimenak bultzatzen jarraitzea: besteak beste, errefuxiatuek jasaten duten krisi humanitarioari erantzutea, Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 aldiko Gida Plana garatzea,

EAEko Erlijioen arteko Kontseilua sortzea eta Eusko Jaurlaritzak euskal komunitate islamikoarekin batera bizikidetza sustatzeko abiarazitako Jarduketa Programaren aurreikuspenak abian jartzea.

AZKEN HIRU GOGOETA

Iraganaren eragina orainaldian

ETA iragana da. Ez dago herritarren egungo lehentasunezko kezken artean. 35 urtetik beherako pertsona gehientzat, gurasoen eta aitona-amonen garaiko arazo bat da. Hala ere, terrorismoaren eta indarkeriaren sei hamarkadek utzi zuten arrastoak eragin-maila handia du oraindik. Bi akordio hartu behar dira oraindik, eta hiru lan-ildo finkatzen jarraitu beharra dago.

- Hartu beharreko akordioak honako hauek dira: alde batetik, terrorismoaren eta indarkeriaren iraganari buruzko gogoeta kritikoa eta partekatua, eta, bestetik, espetxe-politikaren eta gizarteratzearen inguruko akordioa.
- Sakontzen jarraitu beharreko politikak honako hauek dira: biktimak eta bizikidetza, hezkuntza eta bizikidetza, eta memoria eta bizikidetza.

Orainaldiaren eragina orainaldian

Euskal gizartearen kezken agenda eta haien lehentasun-ordena era esanguratsuan eraldatu dira. Tirabira berriak beldurrak eta ziurgabetasunak eragindakoak dira, hala nola etorkizuna aurreikusteko ezintasuna, bizitza- eta familia-proiektua, enplegua edo egonkortasun soziala eta politikoa, eskuin muturraren eta beste estremismo batzuen agerpena, gerraren eta nazioarteko terrorismoaren mehatxua, indibidualismoaren eta elkartasunaren edota askatasunaren eta segurtasunaren arteko kontraesanak, berdintasunaren arloko aurrerapenak eta atzerapausoak, kezka ekologikoa, migrazioaren arazoa eta kultura eta erlijio desberdinetako pertsonetikiko bizikidetza.

Etorkizunaren eragina orainaldian

Etorkizunak orainaldian duen eraginaren definizioa ahalegina baino ez da. Hipotesia da. Eragin hori identifikatzeko, oso garrantzitsua da eraiki nahi dugun etorkizuna aukeratzea. Gauzak orain dirudien bezalakoak izango dira, baina baita guk nahi bezalakoak ere, horretan saiatzen bagara. Etorkizun hobe bat eraikitzeke borondate politikoak eragin aktiboa du. Ikuspuntu horretatik, etorkizun hurbilean, bizikidetzaren eta giza eskubideen euskal agenda gero eta neurri handiagoan izango da mundu osoko bizikidetzaren eta giza eskubideen agenda globala. Eta hori horrela da, lehenik eta behin, objektiboki biak bat datozelako. Eta, bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak bere giza eskubideen agenda giza eskubideen eta bizikidetzaren agenda globala izateko borondate politikoa duelako.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK ETA ESPAINIAKO GOBERNUAK, SEI HILABETEZ, “DEKRETU DIGITALA” NEGOZIATZEA ADOSTU DUTE, GERNIKAKO ESTATUTUAREN URRAKETA EKIDITEKO

- Aldebiko negoziazioak Konstituzio Auzitegiaren aurrean errekurtsua jartzea geldiarazten du, sei hilabetez, haren interpretazioa eta aplikazioa adosteko
- Negoziazio hori inbestidura-akordioan jasota dago. Horren arabera, bi gobernuak desadostasunen auzien ordezkariak akordio politikoa bilatuko dute
- Eusko Jaurlaritzaren ustez, 14/2019 Legegintzako Errege Dekretuak, segurtasun publikoa bermatzeko aitzakiarekin, kontrol-sistema neurrigabea eta hierarkikoa ezartzen du Estatu deszentralizatu batean, eta horrek Euskadiren autonomia politikoko printzipioa eta autoantolakuntza-eskuduntza urratzen ditu
- Gainera, lege hori hain azkar tramitatzea eragin duten salbuespena, larritasuna, adierazgarritasuna eta aurreikus ezintasuna justifikatuko dituen arrazoirik ez dago

Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak **6 hilabeteko aldebiko negoziazio-epea zabaltzea** adostu dute, “*administrazio digitalaren, sektore publikoaren kontratazioaren eta telekomunikazioen arloetan segurtasun publikoko arrazoiengatik premiazko neurriak hartzen dituen urriaren 31ko 14/2019 Legegintzako Errege Dekretuaren*” inguruan **diferentziak konpontzeko**. Datorren otsailaren 5a baino lehen, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu Josu Erkorekak eta Lurralde Politikako ministro Carolina Dariasek, idazki bateratu beten bitartez, Konstituzio Auzitegiari jakinaraziko diote desadostasunak negoziatzeko prozesua zabalduko dela “*Lankidetzako Aldebiko Batzordean*”.

Negoziazio horren xedea da 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 artikulak, Xedapen Gehigarri Bakarra, lehen eta bigarren xedapen iragankorrak, eta azken xedapenaren aplikazioa adostea; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren ustez, haien egungo idazketak Gernikako Estatutuan jasotako Euskadiren eskuduntzak urratzen ditu. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren ustez ez daude justifikatuta hain eduki garrantzitsua duen lege hori Espainiako Gobernuak hainbesteko premiaz tramitatzera eraman zuten “*salbuespena, larritasuna, adierazgarritasuna eta aurreikus ezintasuna*” justifikatuko duen arrazoiak. Horrek, gainera, nortasuneko dokumentazio nazionala, identifikazioa eta sinadura elektronikoa administrazio publikoen aurrean, administrazio publikoaren esku dauden datuak, kontratazio publikoa edo telekomunikazioen sektorea erregulatzen dituzten 7 lege aldatzen ditu.

Negoziazio-prozesu hori irekiz, sei hilabetez, Konstituzio Auzitegiaren aurreko errekurtsua gauzatzea geldiarazten da, inbestidura-akordioan hala adostu

ondoren. Akordio horretan jasotakoaren arabera, bi gobernuek lanean jardungo dute desadostasunen inguruko auzien ordez akordio politikoa lortzeko.

AUTONOMIA POLITIKOAREN ETA AUTOANTOLAKUNTZAREN URRAKETA

Eusko Jaurlaritzaren ustez, Legegintzako Errege Dekretuak, “segurtasun publikoa”, “ordena publikoa” edo “segurtasun nazionala” bermatzeko aitzakiarekin, kontrol sistema ez-legitimoa, neurrigabea eta hierarkikoa ezartzen du Estatu deszentralizatu batean. Horrek Euskadiren **autonomia politikoko printzipioa eta autoantolakuntzako eskuduntza** urratzen ditu, batez ere, bi esparrutan:

- ✓ **Identifikazioa eta sinadura elektronikoa eta datu-base jakin batzuen kokapena:** Espainiako Gobernuak Estatuko aurretiazko baimena ezartzen du, Barne Ministerioko segurtasun-idazkariaren txosten lotesle batean oinarrituta (isiltasun negatiboarekin), administrazio publikoek ziurtagiri eta zigilu elektronikoa ez den identifikazio-sistema propio bat erabili ahal izan dezaten. Gainera, erregistro banatuko teknologiatan oinarritutako identifikazio- eta sinadura-sistemak erabiltzea debekatzen du Espainiako Gobernuak haiek erregulatu arte. Halaber, identifikazio- eta sinadura-sistema horiek, erroldak, datu fiskalak, datu medikoak, etab. jasotzeko, biltegiratzeko eta kudeatzeko behar diren baliabide teknikoak Espainiaren eta Europar Batasunaren barruan egotea behartzen du.
- ✓ **Segurtasuna telekomunikazioen arloan:** Eusko Jaurlaritzak larritzat jo du Legegintzako Errege Dekretuak Euskadiko komunikazio elektronikoen publikoen zerbitzuetan eta sareetan esku hartzeko baimena ematea, esku-hartze hori nola egingo den, zein baldintzetan egingo den eta gehienez zenbat iraungo duen adierazi gabe. Aurretik agindu judizialik gabe telekomunikazioen sare publikoan esku hartzeko aukera zabaltzen duten arrazoiak edo irizpideak ez dira zehazten, ezta justifikatzen ere.

NEURRIZ KANPOKO ZIGORRAK

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren iritziz arau-hauste batzuen eta hauei lotutako zigorren artean ez dago proportzionaltasunik. Proposatutako helburura egokitzen ez diren alferrikako eta gehiegizko neurriak, kautela berezikoak, aurreikusi dira.

ADIERAZPEN ASKATASUNA

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren iritziz arau horrek Espainiako Konstituzioaren 18. eta 20. artikuluen oinarritzako eskubideak eta askatasunak larriki eta modu murriztailean urratzen ditu, Espainiako Gobernuak haren ondorioak transmititzen diren edukietara zabaltzen dituelako, eta, horrekin batera, adierazpen askatasunera.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

2020KO GONZALO NARDIZ BENGOTXEA SARIAK IRAGARRI DITU EUSKO JAURLARITZAK

- **Edizio honetan, emakumeek elikaduraren katean egiten duten lana bistaratzea eta aitortzea indartuko da**
- **Otsailaren 28an amaituko da sarietarako hautagaiak aurkezteko epea**

"Gonzalo Nardiz Bengoetxea 2020" sariak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak. Nekazaritza, arrantza, elikadura eta basogintzaren sektoretan egindako ibilbide profesionalak aitortzeko ematen dira sari horiek.

Sariak Eusko Jaurlaritzak izan zuen lehen Nekazaritza sailburuaren izena daramate, eta 2003az geroztik ematen dira, nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren sektorean egindako ibilbide profesional luzeagatik nabarmendu diren pertsonen edo taldeen lana gizartearen aurrean balioan jartzeko. Edizio honetan, eta Emakume Nekazarien Estatutuen aplikazioan, lehen sektoreko eta baserri munduko emakumeen lana agerian jartzea eta aitortzea sustatu nahi da bereziki.

Deialdi honetan, sektore bakoitzeko pertsona edo talde bati ego gehiagori emango zaizkio sariak, Epamaihaiaren iritziz. Saritu bakoitzak ohorezko sari bat eskuratuko du, eta jendaurreko aitortza, Iñigo Urkullu Lehendakariak presiditutako ekitaldi batean. Saritutako pertsonak edo taldeek berriaz adierazi ahal izango dute sari hori jaso dutela beren inprimaki profesionaletan, bai eta beren establezimenduetan saria jendaurrean jarri ere.

Sarietarako aurkezten diren hautagaiak gutxienez Euskal Herriko bi eragile sektorialen babes beharko dute eta, nolana ere, hautagai izendatutako pertsonak edo taldeak hautagaitza onartu beharko du.

Hautagaitzak eta dagozkien dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako Landa eta Itsasertzaren Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzara zuzendu beharko dira –Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz –, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, ezarritako edozein bideren bitartez. Hautagaitzak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2020ko otsailaren 28an bukatuko da, egun hori ere epean sartuta.

Aurreko edizioetan sarituak

2003. urtea:

Arrantza: Paulino Lucio. AZTIko ikertzailea. Aipamen berezia: Simon Sesma

Nekazaritza: Pedro Perez de Villareal. UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartearen eta Aguraingo Zereal Kooperatibaren bazkide fundatzailea. Aipamen berezia: Joxe Larrea

2004. urtea:

Arrantza: Jose Maria Azkue. Arrantzalea, armadorea eta Gipuzkoako arrantza kofradien lehendakaria

Nekazaritza. Sabino Irulegi. Nekazaritzako elkartegintzaren eta kooperatibigintzaren bultzatzailea.

2005. urtea:

Arrantza: Jose Ignacio Espel Fernandez. Euskal arrantza ontzien interesen defendatzailea hainbat erakunde publikotatik

Nekazaritza: Jose Etxebarria Urruria. Baratzezain eta frutazain berritzailea.

Aipamen berezia: Luis Maria Biteri Gonzalez de Mendibil. Berritzailea esnetarako ardien sektorean.

2007. urtea:

Arrantza: Benito Portuondo Astuy. Pertsona ospetsua armadoreen eta tunidoen arrantzaleen munduan.

Nekazaritza: Felisa Galdos Saenz de Buruaga. Arabako nekazaria, ustiategi baten titularra izan den lehen emakumea.

2014. urtea

Nekazaritza: Tomas Larrañaga, aitzindaria nekazaritza ekologikoan

Arrantza: Victor Badiola, alturako arrantza sektoreko ordezkaria

Elikadura. Artzai Gazta, Artzain Gaztagileen elkarte.

2016. urtea

Nekazaritza: KAIKU Kooperatiba Elkarte

Arrantza: ANABAC, Atunontzi Izozteileen Armadoreen Elkarte nazionala.

Elikadura. Bacalao Giraldo

2018. urtea

Nekazaritza: Alfredo Montoya

Arrantza: Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioa

Elikadura: Hijos de Jose Serrats, SA

Osasuna

EUSKO JAURLARITZAK ADIKZIOEN ARLOKO JARDUNBIDE EGOKIEN ETA IBILBIDE PROFESIONALAREN AINTZATESPENAK SORTZEKO ETA ZEHAZTEKO DEKRETUA ONARTU DU

Eusko Jaurlaritzak, Osasun Sailaren proposamenez, adikzioen arloko jardunbide egokien eta ibilbide profesionalaren aintzatespenak sortzeko eta zehazteko dekretua onartu du gaur.

Dekretu hori Osasun Sailak bultzatutako eta Eusko Legebiltzarrak aho batez onartutako **Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko Legearen** erregelamendu bidezko garapenaren barruan kokatuta dago. Lege horrek pertsona guztien osasuna babestea du helburu, batez ere adingabeena eta gizarte-kolektiborik kalteberenena.

Zehazki, **argitaratutako hirugarren dekretua** da, 2018ko martxoan erakunde-egitura garatzen eta arautzen duen dekretua, eta 2019ko azaroan edari alkoholduen, tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen seinaleztapena arautzen duen dekretua onartu ondoren.

Gobernu Kontseiluak gaur baliozkotu duen arauaren helburua da pertsonak eta erakundeek adikzioen esparruan agertu duten jardun azpimarragarria publikoki nabarmentzeko **ohorezko aintzatespenak eta aipamenak** sortzea eta pertsona horiek arlo horretan garatutako jardunbide egokiak, ekimenak eta berrikuntzak bultzatzea, sustatzea eta haien balioa azpimarratzea.

Dekretuak **bi aintzatespen-modalitate** ezartzen ditu:

Alde batetik, Euskadiko adikzioen arloko **jardunbide egoki**en aintzatespena; bi urtean behin emango da, eta jardunbide egokiei lotutako 3 aipamen espezifiko emateko aukera egongo da.

Bestetik, Euskadin adikzioen esparruan egindako **ibilbide profesionalaren** aintzatespena, lau urtean behin emango dena.

Lehen edizioa bi modalitateetarako izango da, eta edozein pertsonak edo erakundeak aurkeztu ahal izango du hautagaitza. Deialdia urte honen barruan egingo da.

Presidencia

EL GOBIERNO CONSTATA EL ALTO GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LAS INICIATIVAS PREVISTAS EN EL PLAN DE CONVIVENCIA Y DERECHOS HUMANOS PARA 2019

- **El Consejo de Gobierno ha conocido hoy el balance de gestión y ejecución del Plan en 2019 y los principales retos para este año**

El Consejo de Gobierno ha conocido hoy el Informe anual de seguimiento del Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020 del Gobierno Vasco, que recoge el balance de la gestión y ejecución en 2019 de las iniciativas que se contemplan en el Plan, así como los principales retos para este año 2020.

En concreto, de las 15 iniciativas de las que se compone el Plan, 11 presentan un grado de cumplimiento del 100% de los compromisos previstos para 2019. Las cuatro iniciativas restantes presentan un grado de cumplimiento del 80 %, y su ejecución se contempla durante la presente legislatura. En este sentido, el grado de cumplimiento del Plan merece una buena valoración por parte del Gobierno Vasco.

BALANCE GENERAL

La gestión del Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020 ha permitido desplegar un conjunto de ejes de actuación integral que abarca políticas públicas de clarificación del pasado, víctimas, memoria, política penitenciaria, educación, diversidad, solidaridad, divulgación, participación, acción internacional, y cultura de convivencia y derechos humanos.

En relación con la *agenda pendiente*, un balance más específico en este ámbito permite destacar los siguientes logros principales:

- Se ha producido el desarme y disolución de ETA con carácter unilateral, definitivo y sin contrapartidas.
- En la sociedad vasca se ha consolidado el Encuentro Social en torno a la deslegitimación de la violencia y la normalización de una convivencia basada en el respeto al pluralismo.
- En materia de víctimas, se están completando las previsiones que las distintas leyes establecen en materia de asistencia, reconocimiento y reparación.
- El Instituto Gogora se ha consolidado como espacio de gestión consensuada de las políticas públicas de memoria crítica del pasado en Euskadi.
- Después de años sin cambio alguno, en la anterior Legislatura se ha iniciado una modificación de la política penitenciaria, tanto en Francia como en España.

En relación con la **agenda emergente**, el balance de lo realizado ofrece las siguientes referencias principales:

- En materia de migración, la Secretaría ha participado activamente en el diseño e impulso del Pacto Social Vasco por la Migración, la Propuesta Share, y el Plan de Contingencia para la atención humanitaria a migrantes en tránsito.
- En materia de acogida e integración de personas refugiadas la Secretaría ha desarrollado el programa de trabajo acordado en la Mesa Interinstitucional y Social. Ha abierto los albergues de primera acogida de Larraña Etxea en Oñati, y de Zuloaga Txiki en Tolosa. Ha puesto en marcha la experiencia piloto de Patrocinio Comunitario con el ACNUR, el Gobierno español, Cáritas y Jesuitas. Ha respondido a llamamientos humanitarios y ha contribuido a la puesta en marcha del proyecto Aita Mari.
- La Secretaría ha dinamizado y desarrollado el “Programa de Actuación del Gobierno Vasco para promover la convivencia junto a la comunidad islámica vasca” y ha seguido desarrollando el Plan de trabajo de la Comisión Asesora ADOS.
- El Consejo de Gobierno ha aprobado la Ley de lugares, centros de culto y diversidad religiosa en la CAV.
- La Secretaría ha impulsado también el Programa socioeducativo para la prevención de la radicalización violenta, Uztartu; así como la experiencia piloto del Programa Etikasi, con visitas educativas a lugares emblemáticos de Europa marcados por la existencia de campos de concentración, o por graves episodios de violencia.

PRINCIPALES EJES PARA 2020

Con vistas a 2020, el programa de actuación del Plan de Convivencia y Derechos Humanos define con precisión las actuaciones que deben ser abordadas:

- ✓ Tras la materialización de la disolución de ETA, un eje de actuación estratégico es seguir promoviendo un proceso compartido de reflexión crítica sobre la injusticia del daño causado por las violaciones de derechos humanos provocadas por el terrorismo y la violencia.
- ✓ Continuar profundizando en los ámbitos de diálogo, cooperación y acuerdo con las víctimas del terrorismo.
- ✓ Continuar promoviendo, a través del programa de actuación de Gogora y de su Consejo de Dirección, el más amplio consenso posible en las políticas públicas de memoria.
- ✓ Promover acuerdos con el Gobierno español, el Gobierno francés y los grupos parlamentarios para favorecer una nueva orientación de la política penitenciaria en materia de acercamiento y respuestas humanitarias, así como para impulsar políticas de reinserción

- ✓ Continuar impulsando las iniciativas orientadas a responder a los retos emergentes de la convivencia: entre otras, la respuesta a la crisis humanitaria que sufren las personas refugiadas, el desarrollo del Plan Director 2018-2021 de Cooperación para el Desarrollo, la creación del Consejo Interreligioso Vasco, o la puesta en marcha de las previsiones del Programa de Actuación del Gobierno Vasco para promover la convivencia junto a la comunidad islámica vasca.

TRES REFLEXIONES FINALES

La influencia del pasado en el presente

ETA es el pasado. No está entre las preocupaciones prioritarias actuales de la población. Para la gran mayoría de personas menores de 35 años es un problema que afectó a sus padres, madres, abuelas y abuelos. No obstante, el rastro que dejaron seis décadas de terrorismo y violencia sigue teniendo una importante cuota de influencia en el presente. Existen dos acuerdos pendientes y tres líneas de trabajo que deben seguir consolidándose.

- Los acuerdos pendientes son, por una parte, una reflexión crítica y compartida sobre el pasado de terrorismo y violencia y, por otra, un acuerdo sobre política penitenciaria y reinserción.
- Las políticas en las que debe seguir profundizándose son: víctimas y convivencia; educación y convivencia; y memoria y convivencia.

La influencia del presente en el presente

La agenda de preocupaciones de la sociedad vasca y su orden de prioridad se ha transformado de manera substancial. Las nuevas tensiones están marcadas por temores e incertidumbres como la imprevisibilidad del futuro, el proyecto vital y familiar, el empleo, o la estabilidad social y política, la irrupción de la extrema derecha y otros extremismos, la amenaza de la guerra y el terrorismo internacional, las contradicciones entre individualismo y solidaridad, o libertad y seguridad, los avances y retrocesos en materia de igualdad, la preocupación ecológica, la cuestión migratoria, la convivencia con personas de culturas y religiones diferentes...

La influencia del futuro en el presente

La definición de la influencia del futuro en el presente es tentativa. Es una hipótesis. En su identificación juega un papel importante la elección del futuro que queremos construir. Las cosas serán como parece que van a ser; pero también como intentemos que sean. La voluntad política de construcción de un futuro mejor incide activamente. Desde este punto de vista, en el futuro próximo la agenda vasca de la convivencia y los derechos humanos es cada vez más la agenda global de la convivencia y los derechos humanos en el mundo. Es así, en primer lugar, porque objetivamente ambas son coincidentes. Es así, en segundo lugar, porque el Gobierno Vasco tiene la voluntad política de que su agenda de derechos humanos sea la agenda global de los derechos humanos y la convivencia.

Gobernanza Pública y Autogobierno

LOS GOBIERNOS VASCO Y ESPAÑOL ACUERDAN NEGOCIAR, DURANTE SEIS MESES, EL “DECRETO DIGITAL” PARA EVITAR LA VULNERACIÓN DEL ESTATUTO DE GERNIKA

- La negociación bilateral paraliza, durante medio año, la interposición de recurso ante el Tribunal Constitucional para acordar su interpretación y aplicación
- Esta negociación es parte del acuerdo de investidura que establece que ambos gobiernos trabajarán para sustituir la litigiosidad de las discrepancias por el acuerdo político
- El Gobierno Vasco considera que el Real Decreto Ley 14/2019, bajo pretexto de garantizar la seguridad pública, instaura un sistema control desmedido y jerárquico en un Estado descentralizado, que vulnera el principio de autonomía política y la competencia de autoorganización de Euskadi
- Además, no hay razones que justifiquen la excepcionalidad, gravedad, relevancia e imprevisibilidad que han llevado a una tramitación tan urgente de esta ley

Los gobiernos vasco y español ha acordado **abrir un periodo de negociación bilateral de 6 meses para dirimir las diferencias** en torno al “*Real Decreto Ley 14/2019, de 31 de octubre, por el que se adoptan medidas urgentes por razones de seguridad pública en materia de administración digital, contratación del sector público y telecomunicaciones*”. Antes del próximo 5 de febrero, el Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, Josu Erkoreka, y la Ministra de Política Territorial, Carolina Darias, comunicarán en un escrito conjunto al Tribunal Constitucional la apertura del proceso negociación de las discrepancias en el seno de la “*Comisión Bilateral de Cooperación*”.

El objetivo de esta negociación es acordar la aplicación de los artículos 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, Disposición Adicional Única, disposiciones transitorias primera y segunda, así como la disposición final ya que, el Gobierno Vasco considera que su redacción actual vulnera las competencias de Euskadi contempladas en el Estatuto de Gernika. Además, el Gobierno Vasco cree que no están justificadas las razones de “*excepcionalidad, gravedad, relevancia e imprevisibilidad*” que llevaron al Gobierno español a una tramitación tan urgente de esta ley de contenido tan importante y que modifica hasta 7 leyes que regulan la documentación nacional de identidad, la identificación y firma electrónica ante las administraciones públicas, los datos que obran en poder de las administraciones públicas, la contratación pública o el sector de las telecomunicaciones.

La apertura de este proceso negociador paraliza, durante seis meses, la materialización del recurso ante el Tribunal Constitucional y es fruto del

acuerdo de investidura que señala que ambos gobiernos trabajarán para sustituir la litigiosidad de las discrepancias por el acuerdo político.

VULNERACIÓN DE LA AUTONOMÍA POLÍTICA Y LA AUTOORGANIZACIÓN

El Gobierno Vasco considera que el Real Decreto Ley, bajo el pretexto de garantizar la “seguridad pública”, el “orden público” o la “seguridad nacional”, instaura un sistema de control ilegítimo, desmedido y jerárquico en un Estado descentralizado que vulnera el principio de autonomía política y la competencia de autoorganización de Euskadi, sobre todo, en dos campos:

- ✓ **Identificación y firma electrónica y ubicación de determinadas bases de datos:** el Gobierno español establece la previa autorización estatal basado en un informe vinculante de la secretaria de seguridad del Ministerio de Interior (con silencio negativo) para que las administraciones públicas puedan utilizar un sistema propio de identificación distinto a aquellos del certificado y sello electrónico. Además, prohíbe el uso de sistemas de identificación y firma basados en tecnologías de registro distribuido hasta que el Gobierno español lo regule y obliga a que los recursos técnicos necesarios para la recogida, almacenamiento y gestión de esos sistemas de identificación y firma, así como los censos, padrones, datos fiscales, datos médicos, etc. estén dentro del territorio español y de la Unión Europea.
- ✓ **Seguridad en materia de telecomunicaciones:** El Gobierno Vasco considera grave que el Real Decreto Ley permita intervenir las redes y servicios de comunicaciones electrónicas públicas de Euskadi sin que se describa en qué consistirá la intervención, ni las condiciones en las que se realizará, ni la duración máxima que tendrá. No se concretan ni justifican los motivos o criterios que abren la posibilidad de intervención en la red pública de telecomunicaciones sin orden judicial previa.

SANCIONES DESMEDIDAS

Además, el Gobierno Vasco cree que hay una falta de proporcionalidad entre algunas infracciones y sus sanciones. Hay previstas medidas innecesarias y excesivas, cautelarísimas, que no se adecúan al fin propuesto.

LIBERTAD DE EXPRESIÓN

Finalmente, el Gobierno Vasco cree que esta norma afecta de una manera grave y restrictiva a los derechos y libertades fundamentales de los artículos 18 y 20 de la Constitución Española ya que el Gobierno español extiende sus efectos a los contenidos que se transmiten y, con ello, a la libertad de expresión.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

EL GOBIERNO VASCO CONVOCA LOS PREMIOS GONZALO NARDIZ BENGOETXEA 2020

- **En la presente edición se refuerza dar visibilidad y reconocer el trabajo de las mujeres en la cadena alimentaria**
- **El plazo de presentación de candidaturas finaliza el 28 de febrero**

El Gobierno Vasco ha aprobado la orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por la que se convocan los Premios "Gonzalo Nardiz Bengoetxea 2020" a las trayectorias profesionales en los sectores agrario, pesquero, alimentario y forestal.

Estos premios llevan el nombre del primer Consejero de Agricultura del ejecutivo autónomo y se conceden desde el año 2003 para poner en valor ante la sociedad el trabajo de las personas o colectivos que han destacado por su prolongada y ejemplar trayectoria profesional en el sector agroalimentario y forestal. En la presente edición, y en aplicación del Estatuto de las Mujeres Agricultoras, se quiere promover especialmente la visibilización y el reconocimiento del trabajo de las mujeres del sector primario y el mundo rural.

Los premios de la presente convocatoria se concederán, a criterio del Jurado, a una o varias personas o colectivos por cada sector. Consistirán, cada uno de ellos, en una distinción honorífica y en la celebración de un acto de reconocimiento público presidido por el Lehendakari Iñigo Urkullu. Las personas o colectivos premiados podrán hacer mención expresa de dicha distinción en los impresos de carácter profesional, así como exponerla públicamente en sus establecimientos.

Las candidaturas a los premios deberán presentarse con el apoyo de, al menos, dos agentes sectoriales del País Vasco y, en todo caso, deberán contar con la aceptación de la persona o colectivo designados como candidatos.

Estas candidaturas, junto con la documentación pertinente, deberán dirigirse, por cualquiera de los medios establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, a la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas del Gobierno Vasco, c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz. El plazo de presentación va desde el día siguiente al de la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco hasta el 28 de febrero de 2020, inclusive.

Premiados en ediciones anteriores

Año 2003:

Pesca: Paulino Lucio. Investigador de AZTI .Mención especial :Simón Sesma

Agricultura: Pedro Pérez de Villareal. Socio fundador de la Unión de Agricultores y Ganaderos de Álava (UAGA) y de la Cooperativa Cerealista de Agurain. Mención especial: Joxe Larrea

Año 2004:

Pesca: José María Azkue. Pescador, armador y presidente de cofradías de pesca en Guipuzcoa.

Agricultura. Sabino Irulegi. Promotor del asociacionismo y cooperativismo agrario.

Año 2005:

Pesca: José Ignacio Espel Fernández. Defensor de los intereses de la flota pesquera vasca desde diferentes instituciones públicas.

Agricultura: José Etxebarria Urruria. Horticultor y fruticultor innovador.

Mención especial: Luis María Biteri Gonzalez de Mendibil. Innovador del sector ovino de leche.

Año 2007:

Pesca: Benito Portuondo Astuy. Personalidad destacada en el mundo de los armadores y pescadores de túnidos.

Agricultura: Felisa Galdós Sáenz de Buruaga. Agricultora alavesa, pionera en la titularidad femenina de la explotación

Año 2014

Agricultura:.. Tomás Larrañaga, pionero en la agricultura ecológica

Pesca: Victor badiola representante del sector pesquero de altura

Alimentación. Artzain Gazta, asociación de pastores productores de queso.

Año 2016

Agricultura: Sociedad Cooperativa KAIKU

Pesca: ANABAC, la Asociación nacional de Armadores de Buques Atuneros Congeladores.

Alimentación. Bacalao Giraldo

Año 2018

Agricultura: Alfredo Montoya

Pesca: Federación de Cofradías de Pescadores de Gipuzkoa

Alimentación: Hijos de José Serrats S.A.

Salud

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL DECRETO DE CREACIÓN Y DETERMINACIÓN DE RECONOCIMIENTOS A LAS MEJORES PRÁCTICAS Y A LA TRAYECTORIA PROFESIONAL EN MATERIA DE ADICCIONES

El Gobierno Vasco ha aprobado hoy, a propuesta del Departamento de Salud, el decreto de creación y determinación de reconocimientos a las mejores prácticas y a la trayectoria profesional en materia de adicciones.

Este decreto se enmarca en el desarrollo reglamentario de la **Ley de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias**, impulsada por el Departamento de Salud y aprobada por la práctica unanimidad del Parlamento Vasco, con el objetivo de proteger la salud de todas las personas, especialmente de las menores de edad y los colectivos sociales más vulnerables.

En concreto, se trata del **tercer decreto publicado** tras la aprobación en marzo de 2018 del que desarrolla y regula el dispositivo institucional; y en noviembre de 2019, del que regula la señalización en materia de bebidas alcohólicas, productos de tabaco y dispositivos susceptibles de liberación de nicotina.

El propósito de la norma validada hoy por el Consejo de Gobierno es crear **reconocimientos y menciones** honoríficas para destacar públicamente la actuación destacada en el ámbito de las adicciones de personas y entidades, así como impulsar, estimular y poner en valor aquellas buenas prácticas, iniciativas e innovaciones desarrolladas por dichas personas en esta materia.

Así, el decreto establece **dos modalidades** de reconocimiento:

Por una parte, reconocimiento a las **mejores prácticas** en materia de adicciones en Euskadi, que se otorgará cada dos años y al que se suma la posibilidad de conceder hasta 3 menciones específicas de buenas prácticas.

Por otro lado, reconocimiento, cada cuatro años, a la **trayectoria profesional** en el ámbito de las adicciones en Euskadi.

La **primera edición** para ambas modalidades, a las que puede presentar candidatura cualquier persona o entidad, se convocará a lo largo de este año.